



2024-2025 DEIALDIA

ZER DA KARRIKAN?

KARRIKAN “Kaleko Arteetan” Euskal Herriko **artista berrien** sorkuntza eta hedapena bultzatu nahi duen plataforma bat da.

Karrikan bazkide nagusiek osatzen dute:

Bazkideak: Kalealdia Jaialdia (Bilbo), Kaldearte Jaialdia (Gasteiz), Maiatzeko Antzerki Jaialdia (Hendaia), Umore-Azoka (Leioa) eta Antsoaingo udalerrria.

Bazkide elkartuak diren Jaialdiak eta udalerrriak: Arrigorriaga, Iurreta eta Lezo, Kalerki Jaialdia (Zarautz), Kaleka Jaialdia (Lekeitio) eta Ribera en Danza Jaialdia (Nafarroa).

Elkartutako egoitzak: Dantzagunea (Errenteria), Garaion-Sorgingunea (Otaza, Araba) eta Zirkodomo (Bagatza, Bizkaia).

Zer babestu nahi dugu? Plataforma honek Euskal Herrian (7 probintzia historikoetan) kokatuta dauden eta espazio publikoan jarduten duten talde, artista eta konpainia **berrien sorkuntza originalak** sustatu nahi ditu. “Kaleko arteen” nozioari balio berezia emango zaio. “Zuzeneko ikuskizunaren” diziplina guztiak onartuko dira: antzerkia, dantza, zirkua, diziplina anitzekoa, etab. Hala ere, lehentasuna emango zaie euskarazko edo testurik gabeko proiektuei. Azkenik, formatu txikiko edo ertaineko ikuskizunak batoratuko dira.

Deialdi honen helburua da **bi konpainia** aukeratzea da 2024an beren lana garatu dezaten, baina bi abiaduratan egingo dute, bakoitzak bere sortze-prozesuaren bi une desberdinetan.

1. **HAUTATUTAKO LEHENENGO KONPAINIA (A KONPAINIA).** 2024an amaitu eta maiatzean estreinatuko du bere ikuskizuna eta Karrikan sareko bazkide eta elkartekide diren jaialdietan erakutsiko da.
2. **HAUTATUTAKO BIGARREN KONPAINIA (B KONPAINIA).** 2024an hasiko du bere sortze-prozesua, deialdi honetan jasotako diru-laguntzek bultzatuta, 2025eko maiatzean Karrikan bazkide diren jaialdietan euren ikuskizuna estreinatzeko helburuarekin.

HAUTATZEKO IRIZPIDEAK

Hauek izango dira erabakigarriak lagunduko diren proiektuak hautatzerako orduan:

- Planteamendu artistikoaren originaltasuna eta exigentzia
- Proiektuaren bideragarritasuna
- Laguntza-deialdiaren egutegia errespetatzea
- Artisten edo konpainiaren bizilekua (Euskal Herriko 7 lurralde historikoen barruan kokatzea)
- Zuzendari profesional baten laguntza edo “kanpoko ikuspegia” izatea

LAGUNTZAK

Kideek hautatutako proiektua babesteko konpromisoa hartzen dute, era honetan:

A konpainiarentzat (Estreinaldia 2024ko maiatzean):

- 21.600€-ko diru-ekarpenarekin, zergak barne, bazkideen ekitaldi, jaialdi eta/edo programazioetan ikuskizuna erakutsiko dute. Guztira, 12 data, bakoitza 1.800 €- tan (**zergak eta gastuak barne**): Leioa, Hendaia, Bilbo, Gasteiz, Antsoain, Lekeitio, Zarautz, Lezo, Zirkodomo, Arrigorriaga, Iurreta eta Ribera en Danza udal-lerrietako batean.

- Ikuskizunari ikusgarritasuna emanaz Karrikanen webgunean eta bere komunikazio ekintzetan.

B konpainiarentzat (Sortze-prozesuaren hasiera 2024an eta estreinaldia 2025eko maiatzean):

- 2024an 7.700 €-ko ekarpen ekonomikoa egingo da, zergak barne, eta ikuskizuna sortzera bideratuko da. Honako elementu hauek nahitaezkoak izango dira:
 - Kanpoko begirada sorkuntza artistikoaren prozesuan
 - Prozesuari lotutako bitartekaritza-jarduera.
 - Kudeaketa, ekoizpen eta administrazioari buruzko prestakuntza-saio batera joatea.
 - 5 eta 10 egun arteko lau sormen-egoitza gehienez, Hendaia, Dantzaguneko (Errenteria), Garaion-Sorginguneko (Otaza auzoa, Araba) eta/edo Ribera en Danza udalerriarekin kolaboratzen duten udalerrietako batean.
- Apirilean Zirkodomon (Bagatza) sorkuntza egoitza bat eta espazio lagapena izateko aukera.
- Ikuskizunari ikusgarritasuna emanaz Karrikanen webgunean eta bere komunikazio ekintzetan.
- 2025ean 21.600€-ko diru-ekarpenarekin, zergak barne, bazkideen ekitaldi, jaialdi eta/edo programazioetan ikuskizuna erakutsiko dute. Guztira, 12 data, bakoitza 1.800 €-tan (**zergak eta gastuak barne**): Leioa, Hendaia, Bilbo, Gasteiz, Antsoain, Lekeitio, Zarautz, Lezo, Zirkodomo, Arrigorriaga, Iurreta eta Ribera en Danza udalerrietako batean.

HAUTAGAIEN KONPROMISOA

A konpainientzat:

- Euskaraz edo kalean testurik ez duen arte-proiektu bat aurkeztea, **gutxienez 20 minutukoa eta gehienez 50 minutukoa, 2024ko maiatzean estreinatzeko.**
- Karrikan-eko bazkideen jaialdi edo programazioetan eskuragarri egotea, 2024ko maiatzetik irailera.
- Aurrez hautatuz gero, 2023ko **urriaren 2an** Gipuzkoako Dantzagunean (Errenteria) bere proiektuaren aurkezpena egiteko prest egotea bazkide eta bazkideei.

B konpainientzat:

- Euskaraz edo kalean testurik ez duen arte-proiektu bat aurkeztea, **gutxienez 20 minutukoa eta gehienez 50 minutukoa, 2025eko maiatzan estreinatzeko.**
- 2025eko maiatza eta iraila artean, Karrikaneko partaide eta partaideen festibalen edo egitarauen denboraldietan eskuragarri izatea.
- Deialdian nahitaezkoak diren ekintzak egitea laguntza eman eta hurrengo 18 hilabeteetan, bazkideen espazioetako sorkuntza-egoitzak barne.
- Aurrez hautatuz gero, 2023ko **urriaren 2an** Gipuzkoako Dantzagunean (Errenteria) bere proiektuaren aurkezpena egiteko prest egotea bazkide eta bazkideei.

Bi kasuetan:

- Fakturak egiteko aukera izatea eta jasotako laguntzaren zenbatekoa fakturen bidez justifikatzea. Baldintza hori betetzen ez badu, proiektuak beka osorik edo zati batean itzultzeko eska diezaioke onuradunari.
- Bazkideekin lankidetzan aritzea prozesuaren jarraipenean (bilerak, galdetegiak, ebaluazioak, etab.). Baldintza hori betetzen ez badu, proiektuak beka osorik edo zati batean itzultzeko eska diezaioke onuradunari.

- Ikuskizunarekin zerikusia duten komunikazio-euskarri guztietan Karrikan-en logoa, proiektuko bazkideetako logoa eta derrigorrezko aipamenak jartzea.

Bazkideen jaialdien datak 2025erako aldatu ahal izango dira, eta behar bezala jaki- naraziko zaizkie aukeratutako konpainiei, konpromiso guztiak datan mantentzeko asmoz.

Engaiamenduak ez badira betetzen, Karrikan-eko partaideek laguntza osoa edo zati bat itzultzea eska diezaiokeste onuradunari.

AURKEZPENA

Bete beharreko inprimakiaz gain, laguntzak jaso nahi dituzten proiektuak formatu digi- talean aurkeztu beharko dira (gehienez 3MB), eta gutxienez hau aurkeztu beharko da:

A konpainientzat:

- Proiektuaren aurkezpen zehatza, irudiak edo bideoa izanez gero.
- Talde artistikoaren aurkezpena.
- Behin-behineko ekoizpenaren aurrekontua.
- Ikuskizunaren behin-behineko behar teknikoak.

B konpainientzat:

- Proiektuaren aurkezpen zehatza.
- Talde artistikoaren aurkezpena, nahi den kanpoko begirada eta proposatuta- ko bitartekaritza-jarduera barne.
- Behin-behineko ekoizpenaren aurrekontua.
- Prestakuntza-kezken zerrenda.

AURKEZTEKO PROZEDURA

Bete hautagaien formularioa, modalitatearen arabera, hemen:

A AUKERA

B AUKERA

Zalantzarik izanez gero, jarri harremanetan hauekin: karrikan.kudeaketa@gmail.com

Jemima Cano (+34) 622.790.220

Eider Zaballa (+34)

Idazkaritza Teknikoa

KARRIKAN

EGUTEGIA

Arrunta:

- ! 2023ko ekainaren 19a: Deialdiaren irekiera.
 - ! 2023ko abuztuaren 31: Deialdiaren itxiera.
 - ! 2023ko irailaren 4tik 8ra: Aurre-hautaketa.
 - ! 2023ko urriaren 2a: Dantzagunean (Errenteria) proiektuak aurkezteko aurrez hautatu- tako hitzordu finalistak eta proiektuen azken hautaketa.
- 2023ko urria. Hitzordua hautatutako konpainiekin, ekintzak, egutegia eta abar zehazteko eta parte hartuko duten jaialdien datak jakinarazteko.

A konpainientzat:

- 2024ko maiatza: Ikuskizunaren estreinaldia.
- 2024ko maiatza eta iraila bitartean: Ikuskizunen erakustaldia plataformako kideen ekitaldietan.

B konpainientzat:

- 2024ko urtarriletik 2025eko apirilera: Sorkuntza egoitzak.
- 2025eko maiatza: Ikuskizunaren estreinaldia.
- 2025eko maiatza eta iraila bitartean: Ikuskizunen erakustaldia plataformako kideen ekitaldietan.

KARRIKAN BAZKIDEAK

- Bilboko Udala (Bizkaia)
- Gasteizko Udala (Araba)
- Leioako Udala (Bizkaia)
- Hendaiako Udala (Lapurdi)
- Antsoaingo Udala (Nafarroa)

KARRIKAN ELKARTEKIDEAK

- Arrigorriagako Udala (Bizkaia)
- Iurretako Udala (Bizkaia)
- Lekeitioko Udala (Bizkaia)
- Lezoko Udala (Gipuzkoa)
- Zarauzko Udala (Gipuzkoa)
- Dantzagunea (Gipuzkoa)
- Garaion Sorgingunea (Araba)
- Zirkodomo (Bizkaia)
- Erribera Dantzan (Nafarroa)

KARRIKAN-EK 2016TIK HAUTATUTAKO KONPAINIAK

2016-2017: Cía Eva Guerrero - Gauzen helburua

2017-2018: Mystérieuses Coiffures -Xori gizonaren elezaharra - La légende de l'homme oiseau

2017-2018 : Amaia Elizaran - Block

2018-2019: Collectif Eflirkoa - Echos

2019-2020: Berdinki - Mikra

2019-2020: Arriera - Edén

2022-2023: Piszifaktoria Ideien Laborategia - Asfaltoaren azpian,

euria 2022-2023: Batcharte Dantza Kia - Sor(tu.e)gina